



◆ "Antso Jakitune-ko Astoria kafetegian errotulazioa elebitan dago eta txukun, gainera. Eredutzat hartuko ahal dute gainerako ostalariek!"

Euskararen barnetik eta ataritik




◆ "Lehengo batean Donostiako Udal Liburutegira joan nintzen eta "El inquisidor de San Sebastian" argitalpen berria irakurri nuen. Euskaraz ez dute hitz bakar bat ere jarri".

Euskararen alde egiten dena txalotu eta euskararen kontra egiten dena alpatzeko aukera duzu 943-43 12 28 ffonoan.

Udalak gazteentzako 200 etxebizitza egingo ditu

Udalak 30 urtetik beharagoentzako 200 etxebizitza eraikiko ditu Donostiako zenbait lekutan. Etxebizitzok alokairuan eskainiko dira, 45 metro karra-tu izango dituzte eta gazteek gehienera 30.000 pezetako errenta ordaindu beharko dute hilean. Asko jota, bost urtez bizi ahal izango dute apartamentu hauetan.

Jorge Letamendia Hirigintza zinegotziak adierazi duenez, honako hauek dira ekimenaren helburuak: "populazioa zahartzeari aurre egitea, jaiotze tasak gora egin dezan laguntzea eta gazteenei behin-behineko etxebizitzak izateko aukera ematea alokairu prezio merkeetan". Etxebizitza hauetako bat eskuratu ahal izateko, gutxieneko eta gehieneko diru irabaziak eskatuko dira, eta kopuruak oraindik zehaztu



Intxaurren gazteentzako etxebizitzak egingo dira. Bost urte pasa ondoren, gazteek etxeok utzi beharko dituzte.

gabe dauden arren, babes ofizialeko etxebizitzaren sustapenetan eskatzen direnen bultzatan ibiliko dira.

Esan bezala, etxebizitzak Donostiako zenbait lekutan eraikiko dira; Iza, Berio, Puio eta Intxaurren, hain zuzen ere. Horretarako, udal lursailak erabiliko dira. Letamendiak eta Odon Elorza alkateak adierazi dutenez, etorkizunean eki-

men hau zabaltzeko, Donostian mota honetako etxebizitzak egiteko aukera gehiago dago eta.

Udal agintariek espero dute ekimen hau arrakastatsua izatea. Inor ez dutela bazterrean utziko adierazi dute, baina hala ere, interesgarritzat jo dute etxebizitza hauetan batez ere bikoteak sartzea.

MOKO eta KAPMELE

